# Entrevista: LUIS CARCAVILLA, geólogo

**Luis Carcavilla es uno de los referentes a nivel mundial en geoconservación y ha participado recientemente en las III Jornadas sobre Geodiversidad del País Vasco celebradas en el Geoparque de la Costa Vasca.**



**"¿Existe el patrimonio geológico y el geoturismo?" es el título de la ponencia que has impartido. ¿Existe?**

¡Claro que sí! Y no sólo existe, sino que su valor es incalculable. El patrimonio geológico está formado por todos aquellos elementos geológicos que forman parte del patrimonio natural.

**En Euskadi contamos con un inventario de 150 lugares de interés geológico. ¿Qué hace que un lugar presente un interés geológico especial?**

Hay lugares cuya relevancia se centra en que son espectaculares o crean paisajes atractivos. Pero no hay que olvidar que la Geología es una Ciencia histórica y, por lo tanto, tiene una historia que contar.

En Euskadi hay lugares de este tipo. Algunos de ellos nos hablarán de procesos globales, otros de acontecimientos más locales. Y otros, destacarán por ser representativos de la geología de la Comunidad Autónoma o por generar paisajes y formas del relieve significativas. De esto se extraen dos ideas importantes: 1: no todos los lugares de interés geológico son igual de relevantes; 2: su pérdida es irreparable porque nos informa de procesos que ocurrieron hace millones de años y serían imposibles de replicar.

> **"La Geología es una Ciencia histórica; tiene una historia que contar"**

**¿Por qué es importante conservar el patrimonio geológico?**

Precisamente por su importancia y por su fragilidad. Como todo elemento patrimonial, es una herencia que recibimos y que debemos transmitir a nuestros descendientes. En el caso del patrimonio geológico hay mucha gente que cree, erróneamente, que está poco amenazado o que es poco importante. Pero es todo lo contrario: muchos lugares de interés geológico están gravemente amenazados y todos los años debemos lamentar la destrucción de algunos de ellos.

**Has viajado por todo el mundo. ¿Qué representa para alguien como tú el Geoparque de la Costa Vasca?**

El viajar te da perspectiva y te permite valorar al comparar lugares entre sí, como el Geoparque de la Costa Vasca, que es un lugar excepcional al que acudo cuando tengo oportunidad. Esta costa alberga algunos de los afloramientos geológicos más relevantes del mundo, que se utilizan como referencia por todos los geólogos del planeta.

** Lee la entrevista completa en www.geoparkea.com*

## Jaso Geoparkearen albisteak e-posta bidez

Euskal Kostaldeko Geoparkeari buruzko xehetasunik ez galtzeko, sar zaitez **www.geoparkea.com** webgunera eta eman izena; gure newsletterra jasoko duzu aldiro-aldiro e-posta bidez.

**www.geoparkea.com**

Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura · Costa Vasca Geoparque mundial de la UNESCO

Hezkuntza Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea · Euskal Kostaldea UNESCOren munduko Geoparkea

EXPLORE SANSEBASTIAN REGION

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

EUSKADI BASQUE COUNTRY

Kaioa

# Geoparkea

Euskal Kostaldeko Geoparkearen buletina · Boletín del Geoparque de la Costa vasca

Geoparkea — Euskal Kostaldea - Costa Vasca

11. zenbakia - Número 11
Abendua/Diciembre 2017

# GEODIBERTSITATEA ALDARRIKATUZ

### 120 lagunetik gora batu ziren azaroaren 22tik 24ra Euskadiko III. Geodibertsitate Jardunaldietan, Euskal Kostaldeko Geoparkean



Geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren kudeaketa egokia eta EAEko 2020rako Geodibertsitate Estrategiaren sustapena izan zituzten ardatz Euskadiko III. Geodibertsitate Jardunaldiek. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Geoparkeak elkarlanean antolatu zituzten jardunaldiak, Euskadin dugun aniztasun geologikoa, edo geodibertsitatea, hezkuntza- eta turismo-aukera berriak irekitzeko osagarri edo elementu bereizgarri izan daitekeela erakusteko asmoarekin.

Hiru egunetan, adituen hitzaldiak, hezkuntza esparruan, geoturismoan eta geodibertsitatearen dibulgazioan lan egiten duten profesionalen arteko bi lan-mahai interesgarri eta Euskal Kostaldeko Geoparkeko interesgune nagusien kudeaketa bertatik bertara ezagutzeko irteera egin ziren. Jardunaldietako hitzaldien aurkezpenak www.geoparkea.com webgunean eskuragarri daude.

> **Euskadin garrantzia handiko ondare geologikoa dugu; ezinbestekoa da berau zaindu eta egoki kudeatzea**

Parte-hartze zabala izan zuten jardunaldiek, 120 lagunetik gora batu ziren, eta Geoparkeko arduradun Leire Barriusoren hitzetan *"gogoeta eta ekarpen ugari jaso ditugu eta agerian geratu da bazegoela beharra geodibertsitatearen inguruan lan egiten dugun eragile ezberdinen artean hausnarketarako eta eztabaidarako espazio bat sortzeko"*.

# Geoparkea firma un convenio de colaboración con el Gobierno Vasco



**El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda destinará un total de 280.000 euros hasta 2020 para impulsar y desarrollar actividades de conservación y promoción.**

Las actuaciones previstas en el convenio se enmarcan en la Estrategia de Geodiversidad 2020 y en la Estrategia de Biodiversidad del País Vasco 2030, que contemplan entre otros objetivos la conservación de la geodiversidad y la promoción del uso sostenible del patrimonio geológico, así como la restauración y puesta en valor de los ecosistemas integrados, total o parcialmente, en el ámbito del Geoparque de la Costa Vasca.

# COMPROMISO CON LOS OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

**En una jornada celebrada en el Balneario de Zestoa, Geoparkea muestra su adhesión y compromiso con los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y la Agenda 2030**



Euskal Herriko UNESCO Sarea (EHUS), una red de 19 instituciones públicas y privadas vascas vinculadas a UNESCO, entre ellas el Geoparque de la Costa Vasca, presentó el pasado 6 de noviembre en el Balneario de Zestoa la Agenda 2030 y los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), en un acto celebrado junto con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El objetivo principal de la jornada fue dar a conocer los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible acordados por Naciones Unidas para cumplirse en 2030, con el fin de proteger el planeta y garantizar el bienestar global de las personas.

**Miembros de EHUS presentaron proyectos e iniciativas vinculadas al cumplimiento de los ODS**

# HERRITARREN LAGUNTZAREKIN, TXIMELETA INURRIJALEAREN MAPA OSATU DA

**Abuztuan abiatu zuten Zerynthia Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Geoparkeak tximeleta inurrijalea eta haren habitata ezagutzeko proiektu kolaboratzailea**

Gentzianaren inurrijalea izeneko tximeleta non bizi den eta arrautzak jartzeko ezinbestekoa duen landarea non kokatzen den ezagutzeko jarduera antolatu zuen duela hilabete batzuk Geoparkeak, Zerynthia elkartearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Izan ere, Geoparkean, Itziarko Itsaspe auzoan, atzeman izan dira Iberiar penintsulako hiru espezieetatik bi.

Landarearen loraldia bukatuta, datuak biltzeko epea aurtengoz itxi da eta herritarren laguntzarekin bildutako informazioarekin tximeletaren balizko kokapenaren mapa osatu da: berdez, tximeletak arrautzak jartzeko erabiltzen duen landarearen kokapena, eta gorriz, tximeleta ikusi izan den lekua.




**Mapa lagungarria izango da tximeleta espeziea babestu eta kontserbatu ahal izateko**

# EUROPAKO GEOPARKEEN 14. BILTZARREAN PARTE HARTU DU GEOPARKEAK, AZOREETAN

**Europako geoparke guztietako ordezkariak bildu dira bertan eta Euskal Kostaldeko Geoparkeak bi hitzaldi eskaini ditu**



Irailaren 7tik 9ra Europako Geoparkeen 14. biltzarra egin zen Azoreetan (Portugal), "Geoparkeak: garapenerako turismo iraunkorrerako bideak" lelopean, geoturismoa sustatu eta geoparkeak tokiko garapen jasangarrirako erreminta gisa duten garrantzia azpimarratzeko.

**Europako Geoparkeen Sareak 23 herrialdetako 70 geoparke biltzen ditu**

Gure Geoparkeak bi hitzaldi eman zituen bertan. Bata, Leire Barriuso Geoparkeko gerenteak eskainitakoa, Euskal Itsasbazterreko IEZI elkartearekin batera Geoparkeak burutu duen “Flysch & Go” lankidetza proiektua azaltzeko. Bigarren hitzaldiaren baitan, zientziak turismo jasangarriari ekartzen dizkion onurak izan zituen hizpide Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoak.

# GEOPARKEA SE PREPARA PARA UNA NUEVA EVALUACIÓN EN 2018

**Con el objetivo de permanecer durante otros cuatro años en la Red Europea y Mundial de Geoparques**



Cada cuatro años, todos los geoparques incluidos en la Red Europea y Global de Geoparques deben superar un riguroso examen para acreditar que trabajan conforme a los criterios establecidos en materias como el desarrollo sostenible o la conservación y promoción de los valores geológicos y culturales, entre otros aspectos. Geoparkea ya revalidó su título en 2014 y ahora se prepara para una nueva evaluación que tendrá lugar a mediados del 2018.

**Geoparkea recibirá en 2018 la visita de 2 evaluadores de la Red Mundial de Geoparques**

# Sakoneta, bigarren aldiz National Geographic-eko atarian

**Fran Llano argazkilari bilbotarraren argazki bat argitaratu dute**

National Geographic-eko atariak egunero mundu osoko argazki ikusgarri bat argitaratzen du “Eguneko argazkia” atalean eta joan den azaroaren 1ean Fran Llano argazkilari bilbotarrak Sakonetan (Deban) ateratako argazki eder bat aukeratu zuen. Ez da lehen aldia, ordea; urtarrilaren 23an Sakonetako beste argazki bat hautatu zuen.



*Fran Llano - National Geographic*